

domekako kontuak

Mikel Aramendi

Tramankulua, martxan

Garzonek, albistea aurretik zuela, astelehenean antolatutako sarekadarekin abiatu da ezker abertzalea legez kanporatzeko tramankulu politiko-juridikoa. Uda aurretik, Partiduen Legearen eztabaida parlamentarioari itzal handia eginez, jazoera berriak etorriko direla seguru daude hartzekodunak ere, eta hauteskunde atariko kurtso berriarekin, *de facto* zertutako egoera *de iure* berrestera etorriko litzateke korolario legala. Inprobisaziorik ez dago honetan, Aznarren oinordeko-gaien intrigengatik ez bada.

Legetasunari dagokionez trauksila da makina, aspaldiko komikiak argitaratzen zituen haietakoa, baina politikoki efektiboa izateko baldintzak betetzen ditu: nahiko indar badu atzetik, koiuntura analisia nahiko zuzena da, inguruko faktoreen ebaluazioak zentzuzkoa dirudi... Eragozpen juridikoen aberia, heltzekotan, Europatik etorriko litzatekeenez, denbora nahikoa eta gehiegi dauka PPK estrategia hori ia doan frogatzeko.

Lehen eraso honetan Batasuna bere *bigarren defentsa lerro* moduan antolatzen ari zitekeena kolpatu izanak frogatzen du ez bakarrik suntsimendu-estrategia landu baten aztarna, baita ere ezker abertzalearen egitasmoen jakinaren gainean dagoela Aznarren gobernua. Auzia Garzonen esku leial bezain ordezkaezinetatik urrunduzaketen ekimenak atzeratuz, prozeduraren garai eta hedaturaren kontrola bere eskuetan edukitzen jarraitzen du Madrillgo exekutiboak, eta horretan datza segur aski bere baza politikorik preziagarriena.

ETAk, ostegunean Madrilen egindakoa bezalako atentatuak egiteko ahalmena eduki arren kalte estrategiko erabakigarri-



TXEMA FERNANDEZ / EFE
Espainiako Polizia Bilbon miaketa bat egiten, Batasunaren kontrako operazioan.

rik egiteko indarrak ez duela deliberatuz eta (ezker) abertzaleriaren kale mobilizazioak, handienak izanik ere, agoantatzeko zailtasunik ez duenez, sozialisten jarrera politikoa beste buruhausterik ez zaio gertatzen Aznarri. Botoak, Parlamentuan soberra dituenak, dira gutxieneoak; operazioaren legitimitatea (eta, bidenabar, etorkizunean erantzukizun politikoak erdi bana egin edota bakarrik irentsi beharra) legoke jokoan. Eta Zapatero hamaikagarren aldiz makur dadin lortzeak lehentasun osoa du oraintxe bertan.

Era berean eta alderantziz, legez kanporatze *neo-fragista* hau onartzen ez dutenen endelegamendu estrategikoa ezinbestekoa litzateke operazioari benetan aurre egiteko. Baina euskal politikaren joera autodestruktiboak ezagututa, gehiegi espero izatea izango da.

Hirutasun demonioa

«Etxean, dena ederki» esaka joango ziztaion Aznar Bushi *ad limina* bisitaldia egitera, Europako lehendakaria ere badela inork ez duela erreparatu dirudenez. Baina auzoko gorabeherak, benetan arazo diren hirurak, gaiztotzen ari zaizkiola bada-kite Washingtonen ere. Besteak beste, nola edo hala, beraiek ere esku hartzen dutelako hiruretan.

Gibraltarrekoa konponbidean ipintzeko hamaikagarren saioa pikutara joaten ari daitekeen aztarnak ugaritu badira ere (Espainia eta Erresuma Batuko filosofia politikoak ez dira uztartzen errazak), haren haizeak suspertutakoa, Ceuta eta Melillako arazoa gogortzen ari da... Espainia (bakarrik) eta Maroko (Estatu Batuen eta Frantziaren babesarekin) Saharako auzian aurrez aurre tupust egin ahala.

Gallardon eta Le PPen

Endredo iturria izan zen oinordekotza Genesian; bere hartan jarraitzen du. Hiru izangai ofizialak elkarri lazoak ipintzen aspertzen ez diren bitartean, laugarrena izan nahi luketenetako batek, Gallardonek, bere lepoa begiztatik atera eta bere izena zerrendetan sartzen nahiko lan du. Bizkorra izan da etorkinen arrimoan Le PPen-en mamuz baliatzen, baina Jimenez Losantosoren Gazeta Gorrikoek ez diote barkatuko.

gogoratu

Joxan Elozegi

DUELA 105 URTE

‘Baserritarra’

1897 ko maiatzaren 2an argitaratu zuen Sabino Aranak *Baserritarra* astekariaren lehen alea. Arazo handiak zituen abertzaletasunaren aitzindariak agintari espainiarrekin, bere agerkarietan plazaratzen ziren iritziak zirela-eta, baina ez zen amore horren errax ematen duten horietakoa eta, bi urte lehenago gobernuak itxiarazi zion *Bizkaitarra* aldizkariari segida emanez, noizbehinkako orri-sortak eta liburuxkak aski ez zituela, bere bidea urratu zuen berriro agerkarien munduan, orduko prentsa-molde nagusian. Beste modu batzuk erakutsi nahi izan zituen Sabinok: erredakzio-taldea eraberritu zuen, Teofilo Guiard zuzendari, igandekaria izango zen kazeta berria, *Bizkaitarra* hura ez bezala, eta, zentsurari aiseago aurre egin ahal izateko, nork bere artikuluen ondoko ardurua guztien erantzule egin zituen idazleak eta kolaboratzaileak. Alferrik, ordea: Sabinok ez zuen bere barrua

saldu, Espainiak ez zion bere betiereko logika zapaltzaileari uko egin, eta abuztuaren hondarrean itzali zen betikoz *Baserritarraren* argia. Hemezortzi zenbaki, hemezortzi aste gutzira.

Bere horretan iraun zuen Sabino Aranak aldizkari berrian. Egurra eman zion, jakina, Espainiari, eta egurra bereziki, egur galanta, «foruzale», «euskalerrriko» eta «euzkotar geixtoei», aberriaren bidea ukatzen hain temati ageri ziren ustezko euskaldun jatorrei. Ez zen, bestalde, logika politikoaren eta arrazakeriaren izenean, beragan hain fermuki gorpuztuak zi-

ren formula batzuetatik aldendu: «Aberrija eztau gaizkatuko euzkerek; bai ta bakarrik abertzaletasunak» (...) «Asko dira euzkerea ezta-kijen euzkotarrak. Au txarra da. / Batzuk dira euzkerea dakijen maketuak. Au txarragoa da». Ongi zekien, ordea, idatzi haien haziak ez zuela beti eremu elkorra iristen. Ameriketako euskaldunek ere bazuten haien berri. Halaxe azaldu zuen *Californiako Euskal-Herria* kazetak: «Erran gabe doha ez dela karlista eta gehiago dena ez duela sinhesten Don Karlos-ek zerbeit on egiten ahal duela Euskal-Herriarentzat».

Bestelako polemika batek ekarri zuen, itxura denez, *Baserritarraren* azkena. 1897ko abuztuaren 8an hil zuen Angiolillo anarkistak Canovas lehen ministroa. *Euskalduna* astekari foruzaleak atentatu haren aurkako artikulua argitaratu zuen, «Euskalerrria ha sentido su muerte» esanez. Honenbestez iharduki zion Aranak: «Egia izango da dioen hori guztia. Baina bere sentxoan dagoen inori ez zaio inoiz egoki irudituko Canovasen beraren lege baten aurka jotzeko xede duen aldizkaria horrenbestez azaltzea». (...) «Horrelakoa da *Euskalduna*! Foruzale izaten ere ez du asmatzen. Gizagaixoak!».

Hirian bultzatu zuen Sabinok nazionalismoa, eta baserrian haren arketipo idilikoa ipini. Ez dakit zein neurritaraino sinetsi zuen hori guztia, baina biziki zabaldu zen ikusmolde hori XX. mendean. Izenagatik ere, haren oihartzun gutxi izan zuen Sabino Aranaren *Baserritarrak*.